

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

"Navarrorum. Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea" erakusketak Brusela bisitatuko du

Erakusketa Eskualdeetako Komitean bisitatu ahal izango da irailaren 27ra arte Hizkuntzen Europako Egunaren testuinguruan

Asteartea, 2018.eko irailak 18

"Navarrorum. Euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea" erakusketa Bruselako Eskualdeetako Komitera eraman du Nafarroako Gobernuak, Hizkuntzen Europako Egunaren testuinguruan. Erakusketa dokumentala, hizkuntza honek Antzinako Erromatik XIX. mendera arte izan duen agerpena jasotzen duena, irailaren 27ra arte bisitatu ahal izango da.



Irailaren 27a bitartean izango da erakusketa ikusteko aukera.

Peio J. Monteano historialari, soziologo eta artxibozaina komisarioa izanda, Antso VI.a Jakituna erregeak sinatutako dokumentuaren 850. urteurrena bete denean egingo da erakusketa. Dokumentu horretan, "lengua navarrorum" esan zion euskarari, hau da, nafarren hizkuntza.

Dokumentuak sei bloketan bilduta daude, gaika, eta hizkuntzari buruzko lekuko historikoen bilakaera berari erantzuten diote: lehen aldia - Antzinako Erroma eta "mende ilunak" direlakoak-, non ia ez dagoen euskararen arrastorik beste hizkuntza batzuetan idatzitako testuetan; bigarren aldia, non testuetan, lehendabizi, iruindarren, eta gero, nafarren hizkuntza gisa aipatzen duten; hirugarren aldia, non euskaraz idazten den eta laugarren alda, non liburuak euskaraz inprimatzen hasten diren. Bosgarren blokean, XVII. mendean hasten den atzerapen geografiko eta soziala biltzen da. Bestalde, zenbait dokumentutan, XVIII. eta XIX. mendeetan, euskara, arrazoi ilustratuaren eta sentimendu erromantikoaren artean harrapatuta zegoela erakusten da.

Bloke bakoitzaren hasieran ikus-entzunezko labur bat dago, dokumentuak dagokien une historiko eta kulturean kokatzeko. Dokumentuak tamaina handiko paneletan erreproduzitura agertzen dira, transkribatuta, eta azalpen txiki bat ematen da, lau hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Horietako batzuen jatorrizkoak, hala nola Lergako hilarria, II. mendekoa, Leireko kartularioa, XII. mendekoa, edo

Leizarragaren biblia, beira-arasetan ere erakutsiko dira. Dokumentu-ondare honen bidez, *Navarrorum* erakusketak erronka bati egingo dio aurre: ia milurteko eta erdia idatzi ez zen hizkuntza baten bilakaera historikoa idatzizko dokumentuen bidez erakustea.

Lanen jatorria


Erakusten diren dokumentuen zati handi bat Nafarroako Errege Artxibo Orokorrekoak, Nafarroako Gobernuaren mendeko beste dokumentu-zentro batzuetakoak -Nafarroako Museoa edo Nafarroako Liburutegi Orokorra-, eta komunitateko beste erakunde batzuetakoak dira. Azken hauen artean daude Kaputxinoen Liburutegia, Nafarroako Unibertsitateko Liburutegia, Iruñeko Katedraleko Artxiboa, Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa, Gayarre Museo-Etxea, Caja Navarra Fundazioa edo Iruñeko Udal Agiritegia. Halaber, Madrilgo, Santiago de Compostelako, Compostelako, Bilboko, Parisko (Frantzia), Oxfordeko (Erresuma Batua), Chicagoko (AEB) eta Timbuktu (Mali) artxiboetatik etorriko dokumentuak ere erakusten dira.

Bisitak irailaren 27ra arte egin ahal izango dira, edozein ordutan, Eskualdeetako Komitearen bosgarren solairuan, Batiment Jacques Delors kalean, 99 eta 101 zenbakietan, Bruselan.

Hizkuntzen Europako Eguna

Hizkuntzen Europako Eguna dela eta, 2001etik irailaren 26an ospatzen dena, aldi berean eta Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen babesarekin, lan jardunaldi ireki bat antolatu du Nafarroako Gobernuak. Eskualdeetako hizkuntza eta hizkuntza gutxituen babesaren ulermenean oinarrituta, Ana Ollo Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak parte hartuko du bertan, hizkuntza politikan adituak diren pertsonekin batera.

Publikoari hizkuntzak ikastearen eta hauen aniztasunaren garrantzia erakustea du helburu jardunaldiak, hizkuntza aniztasuna eta kulturen arteko ulermena bultzatzeko, hizkuntza gutxituen babesa barnean hartuz. Hizkuntza politikan garatu diren praktika arrakastatsuak aztertuko ditu ere workshopak.



Erakusketa Eskualdeetako Komitearen egoitzan bisita daiteke.